## 2019-06-25eko UDALBATZA BEREZIA

Iruran, bi mila eta hemeretzigarren urteko ekainaren hogeita bostean, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar berezia egin du Udalbatzak, Gorka Murua Macuso alkatea buru duela.

-Azaldu diren Euskal Herria BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

- Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesús Leunda Gurruchaga, José Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: inork ez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### LEHENENGO GAIA
### UDAL-TALDE POLITIKOAREN OSAKETAREN BERRI EMAN.

Legearen arabera udal-talde politikoak osatu behar dira, eta udal honetan hauek izango dira:

**EUSKAL HERRIA BILDU UDAL-TALDE POLITIKOA**. Kideak: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Leticia Aristi Oria**.

Ordezkaria: Noelia Lataburu Ortiz.

**EAJ/PNV UDAL TALDE POLITIKOA**. Kideak: Ana Jesús Leunda Gurruchaga, José Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde.

Ordezkaria: Ana Jesús Leunda Gurruchaga.
Ordezkoa: Marta Castrillo Iturralde.

**BIGARREN GAIA**
**ALKATEORDEAREN IZENDAPENAREN BERRI EMAN.**

2019eko ekainaren 20ko 135 zenbakia duen alkate-dekretuan izendatzen dira Irurako Udaleko alkateordeak eta horren berria ematen da:

"Toki-jardunbideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluak jasotakoa betez, alkateordeek alkatea ordezkatzen dute, izendatu diren ordenan, kargua hutsik badago, alkatea ez badago edo gaixo badago; alkateak izendatzen eta kentzen ditu bere ordezkoak, zinegotzien artean.

"De acuerdo con lo dispuesto en el art. 23.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, los Tenientes de Alcalde sustituyen por el orden de su nombramiento y en los casos de vacante, ausencia o enfermedad al Alcalde, siendo libremente designados y removidos por éste entre los Concejales.

Hori guztiagatik eta indarrean dagoen legediak jasotako eskumenak betez,

Ante ello y de acuerdo con las competencias señaladas en la legislación vigente,

ERABAKI DUT:

R E S U E L V O :

Lehena.- Irurako Udaleko alkateorde izendatzea zinegotzi hauek, orden honetan:

Primero.- Nombrar Tenientes de Alcalde de este Ayuntamiento de Irura y por este orden a los siguientes Concejales:

- Lehen Alkate ordea: Noelia Lataburu Ortiz anderea, E.H. Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.
- Bigarren Alkate ordea: Mikel Gotzon Iturbe Saizar jauna, E.H. Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.
- Hirugarren Alkate ordea: Olaia Nieto Legarra anderea, E.H. Bildu udal talde politiko den zinegotzia.

Bigarrena.- Ebazpenaren berri ematea udalbatzaren lehenengo bileran, eta era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Izendatu diren guztiei jakinaraztea.

Segundo.- Dar cuenta de esta Resolución al Pleno de esta Corporación, en la primera sesión que celebre y publicarlo así mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Así mismo, notificar a los nombrados.

Hirugarrena.- Edonola ere, ebazpena eraginkorra izango da ebazpen hau sinatu eta hurrengo egunetik hasita."

Tercero.- En todo caso la efectividad de la presente Resolución se producirá al día siguiente de la firma de esta Resolución."

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

**HIRUGARREN GAIA**
**UDALBATZAREN OHIKO BILERAREN ALDIZKAKOTASUNA ONARTZEA.**

Alkateak Udal honetako Osoko Bilkuraren aldizkakotasunaren proposamena aurkeztu du.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batez, erabaki hau onartu du:

"Tokiko araubidearen legedian ezarritakoari jarraiki, egiten den lehen saioan ezarriko da Udalaren Osoko Bilkuren ohiko saioen aldizkakotasuna. Era berean, ezarrita dago 5.000 biztanle arteko udalerrietan gutxienez 3 hilabetean behin bilduko dela.

"De acuerdo con lo dispuesto en la legislación de régimen local, por el primer pleno que se celebre se debe de fijar la periodicidad de las sesiones ordinarias del Pleno del Ayuntamiento. Así mismo se señala que en los municipios hasta 5.000 habitantes se reunirá con una periodicidad mínima de 3 meses.

AKORDIOA

Udal honetako Osoko Bilkuraren ohiko saioak hilabetean behin egingo direla adostea, eta zehazki, hileko azken asteartean, 19:30ean.

Jaieguna edo jaiegun bezpera bada, hurrengo asteartean egingo dute saioa, ordu berean ."

ACUERDO

Acordar que la periodicidad de las sesiones ordinarias del Pleno de este Ayuntamiento sea mensual, los últimos martes de mes a las 19,30 horas.

En los casos en que recaiga en festivo o en víspera de festivo, se celebrará el próximo martes a la misma hora."

**LAUGARREN GAIA**

**ALKATEAREN ORDAINSARIARI ETA UDAL-KIDEEN DIETA ETA LOKOMOZIO GASTUEI DAGOKIEN AKORDIOAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

"Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluak Tokiko Erakundeetako kideen eskubide ekonomikoak ezartzen ditu, eta ordainsariak, kalte-ordainak eta laguntzak jaso ditzaketela xedatzen du.

"Por el art. 75 de la Ley /1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, se señalan los derechos económicos que tienen los miembros de las Corporaciones Locales, pudiendo percibir retribuciones, indemnizaciones y asistencias.

Eta proposamena ikusita , BOZKETA hauek izan dira:

1º. BAI 4(EHBildu) , EZ 4(EAJ/PNV). Berdinketa .

2º. BAI 4 (EH Bildu) ,EZ 4 (EAJ/PNV).

Berdinketa.

Onartuta geratu da alkatearen kalitateko botoari esker (7/1985, apirilaren 2ko legearen 21.3 artikulua).

Horregatik hau onartu da:

ERABAKIA

1º.- Alkatesari baimena ematea kargua erabateko arduraldian bete dezan, eta ezartzea hilabetean 2.400 €-ko ordainsari gordina jasoko duela eta hamalau ordainketa izango dituela. Urtean zehar kopuru osoa hau izango da: 33.600 euro.

2º.- Bertaratzeagatik Dietak: 60 euro benetan etortzeagatik Udalbatza saio bakoitzagatik eta dedikazio partzial edo erabatekoa ez daukaten zinegotzientzat.

3º.- Udal kide bakoitzarentzako kalte-ordainak onartzea, kargua betetzeak eragiten dizkien gastuengatik, arau hauen arabera:

a) Ibilgailu pribatua edo motozikleta partikularra erabiliz gero, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 13ko 121/2006

ACUERDO

1º.- Autorizar a la Alcaldía el desempeño del cargo con dedicación exclusiva, fijándole una retribución mensual bruta de 2.400 €, con catorce pagas anuales. Total anual: 33.600 euros.

2º.- Dietas por asistencia: 60 euros por asistencia efectiva por sesión de Pleno para concejales sin dedicación total o parcial.

3º.- Aprobar indemnizaciones para los Corporativos por los gastos efectivos ocasionados en el ejercicio de su cargo, de acuerdo con las siguientes normas:

a) En el caso de utilización de vehículo privado, las indemnizaciones que procedan de acuerdo con el Decreto121/2006, de 13 de junio del

Dekretuaren eta etorkizunean egiten diren aldaketen arabera dagozkion kalte-ordainak.

Era berean, gastu osagarriak (aparkalekua, TAO…) ordaintzea, fakturaren, ordainagiriaren edo tiketaren zenbatekoaren arabera.

Gobierno Vasco y las modificaciones que se efectúen en el futuro.

Así mismo gastos complementarios (autopista, aparcamiento, OTA...), según importe de factura, recibo o tique.

b) Garraio publikoa erabiliz gero, justifikatutako gastu errealaren arabera, kasuan kasu (txartela, ordainagiria…).

b) En caso de utilización de transporte público, en función del gasto real justificado según proceda (billete, recibo etc...).

c) Dietak (otorduak, ostatua...), behar bezala justifikatutako gastu errealaren arabera (faktura, ordain agiria …).

c) En concepto de dietas (comidas, alojamiento...) en función del gasto real debidamente justificado (factura, recibo...).

4º.- Halaber, Urteko aurrekontua Egikaritzeko Oinarrietan arau osagarriak onartzeko baimena ematea."

4º.-Así mismo se autoriza la aprobación de normativa complementaria en las Bases de Ejecución del Presupuesto anual."

Eztabaida:

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du ez daudela ados informazio Batzordetara bertaratzeagatik ez kobratzearekin. Bilera informatiboa izan dela Eudelek deituta, udal kargu publikoentzat araudia jakiteko eta han esan zutela Euskal Herriko Toki Erakundeen legeak onartzen duela batzordetara bertaratzeagatik kobratzea, dedikazio osoa edo partziala ez daukaten zinegotziak.

Alkateak erantzun du idazkariak ez diola kontrakorik esan proposamenaren aurka eta udaleko beste legealdian bezala, azken lau urtetan izan ezik, proposatzen dutela informazio batzorde bilerak ez kobratzea, legearen aurka ez izatearen bitartean.

Ana Jesus Leunda Gurruchaga zinegotziak (EAJ/PNV) alkatearen soldataren ehuneko hogeiko igoera proposatzen dela, aurreko alkatearen soldatarekin alderatuz. Eta hori ikusita eta gainera proposatzen dela ez kobratzea informazio batzordearen bilerak, legeak onartzen duena bezala, bere botoa ezezkoa izango dela eta eskatzen dute azken gaia berriz aztertzea.

Alkateak erantzun du idazkariak pasatu zizkiola alkatearen soldataren muga legalak eta, Irurako Udalaren kasuan, berrogeita hamabi mila euroko soldata kobratzeko aukera dago urtero, eta muga hori oso urrun dagoela proposatzen den soldatatik. Orain lanean daukan soldata gordina baino hiru mila bostehun euro gutxiago dela urtean, eta nahi duenak aukera daukala bere

errenta aitorpena ikusteko. Beraren ustez zentzuzko proposamena da, eta eskubide osoa daukala proposatzeko.

Olaia Nieto Legarra zinegotziak (EH Bildu) adierazi du batzorde informatiboetan kobratzeko zenbateko legalari buruz, idazkariak esango duela proposamena legez aurkakoa bada.

Alkateak proposatu du proposamena bozkatzea eta idazkariak azken gaia aztertzea.

**BOSGARREN GAIA**

**BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAK SORTZEA ETA BERE OSAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

"Tokiko Araubideari buruz indarrean dagoen legediari jarraiki, eta Osoko Bilkurak hala adosten badu, Osoko Bilkurak erabaki beharreko gaiak aztertu, jakinarazi edo kontsultatzeko erakundeak osatuko dira, eta alkateak eta ordezkaritzak dituzten zinegotziek gai horiei jarraipena egingo die, Osoko Bilkurari dagozkion kontrol eskumenei kalterik egin gabe. Erakunde horiei Informazio Batzorde deitu ohi zaie. Iraunkorrak edo Bereziak izan daitezke.

"De acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente de Régimen Local, existirán, si así lo acuerda el Pleno, órganos que tengan por objeto el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del Pleno, así como el seguimiento del Alcalde y los concejales que ostenten delegaciones sin perjuicio de las competencias de control que corresponden al Pleno. Estos órganos normalmente se denominan Comisiones Informativas. Pueden ser Permanentes y Especiales.

Eta proposamena ikusita, 4 boto alde (EH Bildu) eta 4 abstentzio (EAJ/PNV) hau onartu da:

ERABAKIA

1º.- Hori ikusita, Informazio Batzorde Iraunkor hauek eratzea erabaki dute:

1.- Kultura eta Kirolari buruzko Informazio Batzordea.

-Presidentea: Leticia Aristi Oria.

-Idazkaria: Kultura arduraduna.

2.- Euskarari buruzkoa Informazio Batzordea.

-Presidentea: Noelia Lataburu Ortiz.

-Idazkaria: Euskara teknikaria.

ACUERDO

1º.- Ante ello se acuerda la creación de las siguientes Comisiones Informativas Permanentes:

1.- Comisión Informativa de Cultura y Deportes.

-Presidente: Dª. Leticia Aristi Oria.

-Secretario/a: Responsable de Cultura.

2.- Comisión Informativa de Euskara.

-Presidente: Dª. Noelia Lataburu Ortiz.

-Secretario/a: Técnico/a de Euskara.

3.- Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordea.

-Presidentea: Olaia Nieto Legarra.

-Idazkaria: Eragile soziokulturala.

3.- Comisión Informativa Juventud y Participación.

-Presidente: Olaia Nieto Legarra.

-Secretario/a: Animador/a socio-cultural.

4.- Berdintasunari buruzko Informazio Batzordea.

-Presidentea: Noelia Lataburu Oritz.

-Idazkaria: Kultura laguntzailea.

4.- Comisión Informativa de Igualdad.

-Presidente: Dª. Noelia Lataburu Ortiz.

-Secretario/a: Auxiliar de Cultura.

5.- Gizarte Zerbitzu eta Hirugarren adinakoari buruzko Informazio Batzordea.

-Presidentea: Olaia Nieto Legarra.

-Idazkaria: Gizarte langilea.

5.- Comisión Informativa de Servicios Sociales y 3ª Edad.

-Presidente: Dª. Olaia Nieto Legarra.

-Secretario/a: Trabajador/a Social.

6.- Hirigintzari, Obrei, Zerbitzuak, Jasangarritasun Energetikoa, Ingurumenei buruzko Informazio Batzordea.

-Presidentea: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Idazkaria: Arkitekto teknikoa.

6.- Comisión Informativa de Urbanismo, Obras, Servicios, Sostenibilidad Energética y Medio Ambiente.

-Presidente: Dº. Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Secretario/a: Arquitecto Técnico/a.

7.- Kontuei, Ogasuna, Administrazioa, Ekonomia eta Enpleguari buruzko Informazio Batzorde Berezia.

-Presidentea: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Idazkaria: Idazkari kontu-hartzailea.

7.- Comisión Informativa Especial de Cuentas, Hacienda, Administración, Economía y Empleo.

-Presidente: Dº. Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Secretario/a: Secretario/a-Interventor/a.

2º.- Kide hauek osatuko dute Batzordea:

-2 zinegotzi, EH Bildu alderdi politikoaren ordezkari gisa.

-Zinegotzi 1, EAJ/PNV alderdi politikoaren ordezkari gisa.

2º.- La Comisión estará compuesto por los siguientes miembros:

-2 Concejales en representación del Grupo Político de Euskal Herria Bildu.

-1 Concejal en representación del Grupo Político de EAJ/PNV.

3º.- Hilabetean behin bilduko dira.

3º.- La periodicidad de las reuniones será mensual.

4º.- Alderdi politikoek beren ordezkariak hautatuko dituzte, eta Alkatetzak alderdien Lehendakaritza

4º.- Los Grupos Políticos deberán nombrar representantes de los mismos y la Alcaldía delegará la Presidencia de los mismos.

eskuordetuko du.

5º.- Informazio Batzorde guztiek uztailean bilera egingo dute, hainbat gai adosteko, besteak beste: ohiko saioen datak.

5º.- Cada Comisión Informativa se reunirá el mes de julio, para, entre otras cuestiones, aprobar las fechas de reunión ordinarias.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du aurreko legealdian dauden informatibo batzordeak, bakoitzak gai ugari izan ditu lan ondo egiteko eta horregatik proposatzen dute batzorde gehiago sortzea eta bakoitzak gai gutxiago biltzea. Eta udal talde politikoen banaketari dagokionez, EH Bilduk bi kide izatea eta EAJ/PNV bat edukitzea proposatu da.

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) lehen aipatu den udal ordezkarien bilera informatiboan aholku zuten gehien 3 informatibo batzordea sortzea gehi Kontu batzordea eta  udal batzuk horrela hasi dira, aurreko legealdian hemen izan zen bezala.

Alkateak erantzun du gai batzuk kanpoan geratu dira, berdintasuna eta partaidetza hain zuzen ere, ezabatu geratu direlako kultura edo kirola batzorde berean sartzen direnean, adibidez  eta gai hauek behar bezala lantzeko beste informatibo batzordea berri bat sortu behar dela..

Hori dela eta, zuzenean batzordeetako kideen izendapena egin da :

- Kultura eta Kirolari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Leticia Aristi Oria,Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: Ana Jesús Leunda Gurruchaga.

- Euskarari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Noelia Lataburu Ortiz;Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: Marta Castrillo Iturralde.

- Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Olaia Nieto Legarra,Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: Marta Castrillo Iturralde.

- Berdintasunari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Noelia Lataburu Ortiz,Gorka Murua Macuso.

- EAJ/PNVtik: María Cristina Santos San Sebastian.

- Gizarte Zerbitzu eta Hirugarren adinari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Olaia Nieto Legarra,Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: María Cristina Santos San Sebastian.

- Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Jasangarritasun Energetikoa eta Ingurumenari buruzko Informazio Batzordea.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Mikel Gotzon Iturbe Saizar,Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: Ana Jesús Leunda Gurruchaga.

- Kontuak, Ogasuna, Administrazioa, Ekonomia eta Enpleguari buruzko Informazio Batzorde berezia.
  Kideak:
  - E.H. Bildutik: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.,Gorka Murua Macuso.
  - EAJ/PNVtik: Ana Jesús Leunda Gurruchaga.

**SEIGARREN GAIA**

**BESTE ERAKUNDEETAN IRURAKO UDALEKO ORDEZKARIAK ONARTZEA.**

Alkateak bere proposamena aurkeztu du.

"Udal hau hainbat erakundetako partaide da eta erakunde horietako ordezkariak izendatu behar ditu.

Alkatearen proposamena ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1.-"Tolosaldea Garatzen" enpresa publikoen ordezkaria:
-Gorka Murua Macuso (Titularra).
-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Ordezkoa).
2.-"Loatzo Mankomunitatea"-n ordezkaria:
-Leticia Aristi Oria.
-Noelia Lataburu Ortiz (Ordezkoa).
3.-"Tolosaldeko Mankomunitatea"-n ordezkaria:
-Gorka Murua Macuso (Alkatea).
-Leticia Aristi Oria (Ordezkoa).
4.-"Gipuzkoako Ur Kontsortzio"-an ordekaria:
-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Titularra).

-Gorka Murua Macuso (Ordezkoa).
5.-"Tolomendi"-n ordezkaria:
-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Titularra).
-Olaia Nieto Legarra (Ordezkoa).
6.-"Euskal Fondo"-an ordezkaria:
-Olaia Nieto Legarra ( Titularra).
-Noelia Lataburu Ortiz ( Ordezkoa).
7.-Tolosaldelo "Hiltegi Mankomunitatea"-n ordezkaria:
-Noelia Lataburu Ortiz (Titularra).
-Olaia Nieto Legarra (ordezkoa).
8.-"Apatta Erreka Industrialdea" empresa publikoan ordezkaria:
-Leticia Aristi Oria(Titularra).
-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Ordezkoa).
9.-Uema Mankomunitatean ordezkariak:
-Noelia Lataburu Ortiz.
-Olaia Nieto Legarra.
10.- "Udalbiltza"-ren ordezkaria:
-Noelia Lataburu Ortiz.
-Gorka Murua Macuso."
11.- Haurreskola Patzuergoa –ren ordezkariak:
-Gorka Murua Macuso (Alkatea).
-Noelia Lataburu Ortiz (Ordezkoa)

** Leticia Aristi Oria hautatu da zinegotzi 2019ko maiatzaren 26ko toki hauteskundeetan baino oraindik ez du kargua hartu.Aipatzen da udalaren antolaketa osoa azaltzeko eta kargua hartzeko baldintzarekin.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:45ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA IDAZKARIA